

Funtsezko baliabideak

Gure enpresa aurrera eramateko aintzat hartu behar ditugun funtsezko baliabideak hauek dira: baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

- **Baliabide fisikoak:**

Baliabide fisiko gutxi izango ditugu etxetik lan egingo dugulako, beraz, ez dugu lokalik izango eta ez dugu dirua altzaritan gastatuko. Etxetik lan egitea gure negozioarentzako abantaila batzuk izango ditu, ez dugu lokal baten alokairuan dirua gastatuko beraz aurrezten dugun diru hori beste gauza batzuetan inbertitzeko aukera izango dugu.

Lau bazkide gara eta bakoitzak ordenagailu bat eta enpresaren mugikor bat izango dugu, gure negozioak zuzentzeko.

- **Baliabide intelektualak:**

-Enpresaren izenaren (Sarrerapp) marka erregistratuta egongo da Espainia Patente eta Marken Erregistroan.

-Aplikazioa egiteko eta gure sare sozialak administratzeko.

-Bezeroak lortzeko eta gurekin mantentzeko abildadea, negoziatzeko ahalmena.

- **Finantza- baliabideak:**

-Hasierako inbertsioa 4000€-koa izango da, lau bazkide garez bakoitzaren ekarpena 1000€-koa izango da.

-Lanbide (Euskal enplegu zerbitzua) 5.050€-ko laguntza emango digu gazteak eta hiru emakume garelako. Enpresa-idea bat garatzeko laguntza 1.000 eurokoa da sustatzaile bakoitzeko. 19 eta 20 urte ditugunez zenbateko hori % 15 areagotzen da. Gainera, hiru emakume izateagatik kantitate hori beste %15 areagotzen da.

- **Giza baliabideak:**

-Kerman eta Amaia, arlo komertzialaren arduradunak.

-Ane, administrazio eta kudeaketa arduraduna.

-Aida, marketing arduraduna.

- **Kanpo baliabideak:**

Kanpoko enpresarekin lan egingo dugu gure aplikazioa sortzeko, mantentzeko eta arazo teknikoak izatekotan haiek konponduko dituzte.